

**OÑATIKO UDALEAN ALDI BATERAKO LAN POLTSAK KUDEATZEKO FUNTZIONAMENDUA
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

- PARTE HARTZEARI BURUZKO TXOSTENA -

Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen Legearen 133. artikulua behartzen du araudi proiektu bat prestatu aurretik kontsulta publikoa egitera.

Kontsulta publikoaren helburua da herritarrek eta kontu hauetan zeresana izan dezaketen erakundeek ondorengo puntu hauei buruz zein zer iritzi duten jakitea:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurrekoa kontuan hartuta, Oñatiko Giza Baliabide eta Antolakuntza Sailak Oñatiko udalean aldi baterako lan poltsak kudeatzeko funtzionamendua arautzeko ordenantza onartzeari buruzko arau-ekimenari dagokion alde aurreko kontsulta publikoa bideratu zuen.

2023ko otsailaren 23ko Alkate Dekretuz onartu zen aipatu ordenantza kontsulta publikora ateratzea, udaleko barne prozedurari jarriki 20 egun balioduneko epean eta Oñatiko udaleko web atariaren bitartez.

Ekarpenak egiteko epea: 2023ko martxoaren 18a arte.

Epa amaitu da ekarpenik jaso gabe.



Oñatin, 2023ko martxoaren 20an
PARTAIDETZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOKO TEKNIKARIA